

HONDAKIN BILTZAILE-KAMIOI GIDARIAK KONTRATATZEKO AUKERAKETA PROZESUAREN OINARRIA

1.- OINARRIEN XEDEA

Oinarrien xedea Garbitania Zero Zabor S.M. enpresarako hondakin biltzaile-kamioi gidarien aukeratzeko prozesua arautzea da, Garbitaniari sortu dakioken behin behineko zein aldi baterako beharrak asetzeko lan poltsa eratuko delarik. Lanpostua Udalhitzeko E taldean eta 8. mailari dagokion soldata-maila du (25.467,57 euro. Soldata hori kontzeptu guztiengatik izango da, eta 12 hileko ordainketatan eta aparteko bitan, abenduan eta ekainean, egingo da.).

2.- LAN BALDINTZAK ETA EGINKIZUNAK

Lansaila Garbitaniak zehaztutakoa izango da, zerbitzuaren premien arabera. Lanegunak eta ordutegia Garbitaniak urtean-urtean finkatutakoak izango dira, betiere lanpostuaren izaeraren eta zerbitzuaren premien arabera.

Deialdi honen xede den lanpostuaren eginkizunak, besteak beste, ondoko hauek dira:

- Garbitaniak atez ateko bilketa zerbitzua eskaintzen duen Udalerrietan hondakinen atez ateko bilketa lanak egitea.
- Garbitaniak dituen kamioiak egoki erabiliz agindutako herrietan zamalanak egitea, batik bat, hondakin bilketatik eratorritakoa. Alegia, kamioiak gidatzeaz gain bilketa bera burutzea.
- Kamioiaren ardura hartzea eta ohiko garbiketa eta mantentze-lanez arduratzea, edota bere arduradunari berri ematea.
- Larrialdi eta aportazio guneetako bilketa eta garbiketa.
- Intzidentziak eta sortutako hondakinen ordainketak kontrolatzeko sistemen aplikazio eta jarraipena egitea.
- Eskatzen zaion beste edozein lan, bere kategoriari eta proiektuari dagokiona.

3.- BALDINTZAK

- a) Adinez nagusia izatea.
- b) Eskola-ziurtagiri edo parekoa den titulazio maila izatea.
- c) Europar Batasuneko kide diren estatuetakoa baten herritartasuna izatea, edo, Europar Batasunak egindako eta Espainiako Estatuak berretsitako Nazioarteko Itunei jarraiki, langileen zirkulazio askea aplikatzen zaion estaturen bateko herritarra izatea.

Parte hartu ahal izango du, baita ere, Europar Batasuneko kide diren estatuetako herritarren ezkontideak, beti ere zuzenbideko banaketarik gabekoak badira; baita ere bere ondorengoak eta bere ezkontidearenak, baldin eta zuzenbideko banaketarik gabekoak badira, eta ondorengo horiek hogeita bat (21) urte baino gutxiagokoak badira, edo adin horretatik gorakoak, baina bere kontura edo emantzipatuta bizi direnak.

Era berean, parte hartu ahal izango dute Espainiako estatuan bizi eta aurreko paragrafoetan sartu gabe dauden atzerritarrek. Hauek aukeratuak izango balira, kontratuaren objektu den jarduera burutzeko administrazioaren baimena dutela frogatu beharko dute, aipatutako kontratua egin baino lehen. Diziplinazko espedientearen bidez inongo Administrazio Publikoren Zerbitzutik baztertua ez izatea, eta funtzio publikoak betetzeko ezgaiturik ez egotea.

d) Lanpostuen eginkizunak normaltasunez betetzea galaraziko dion gaixotasunik nahiz muga fisiko edo psikikorik ez izatea.

e) Bateriaezintasunik edo ezgaitasun legalik ez izatea, Herri Administrazioaren Zerbitzuan dagoen pertsonalaren bateraezintasuna arautzen duen abenduaren 26ko 53/1984 Legean xedatutakoaren arabera. Dena den, kargu publiko edo jarduera pribatu bateraezina burutzen ari direnek aukeratzeko eskubidea erabili ahal izango dute, aipatutako legearekin bat etorritz.

f) 1. hizkuntz eskakizunari dagokion euskara maila, derrigorrezkoa.

g) C motako gida baimena edo baliokide baten jabe izatea eta CAP gaitasun agiria izatea.

Oinarri honetan zerrendatutako baldintzak, eskabideak aurkezteko epea bukatzen den egunean bete beharko dira eta lanpostuaren jabetza eskuratu bitartean mantendu. d), e) eta f) azpiataletan ezarritzen diren baldintzak bere unean egiaztatu beharko dira.

4.- INSTANTZIAK

Izangaiek 3. oinarrian jasotako baldintza guztiak betetzen dituztela adierazi beharko dute aukeraketa prozesuan parte hartzeko aurkeztu den eskabidean. (I. eranskina).

Instantzia horiek Garbitaniako bulego nagusian aurkeztuko dira (Puntapax kalea 10 behea, 20170 Usurbil). aurkeztu beharko da 9:30etik 14:00etara edo korreo zertifikatu bidez bidali, erreferentzia gisa **ERREF.biltzaile-gidari** garbi zehaztuaz. **Instantziak aurkezteko epea 2013ko apirilak 8tik 19 bitartekoa izango da.**

Correos bulegoetan aurkeztutako instantziak, bertan entregatuko dira, horiek aurkezteko epea amaitu baino lehen, gutun-azal ireki batean, Correoseko langileek data eta zigilu jartzeko. Bakarrik era

horretan ulertuko da instantziak Correos bulegoan sartu zirela aurkeztu ziren egunean.

Hautaketa prozesuan parte hartzeko eskabideak ondoko baldintza hauek bete beharko ditu atzera bota ez daitezten:

a) Hirugarren oinarrian eskatutako baldintza bakoitza eta guztiak betetzen dituztela adierazi beharko dute izangaiek, betiere eskabideak aurkezteko epea amaitzen den egunari dagozkiola.

b) Eskabidearekin batera, ondoko agiriok erantsiko dituzte:

- Nortasun-agiriaren fotokopia.
- Gida baimenen fotokopia eta CAParen kopia
- Deialdian parte hartzeko eskatutako tituluaren fotokopia.
- Hizkuntza eskakizunaren egiaztagiriaren kopia.

5.- IZANGAIEN ONARPENA

Instantziak aurkezteko epea amaiturik, Garbitaniak onartutako eta baztertutako izangaien behin-behineko zerrenda onartuko du eta Garbitaniako bulegoko iragarki taulan eta webgunean argitaratuko da (www.garbitania.com).

Behin-behineko zerrenda hori behin betikotzat hartuko da iragarkiaren hurrengo egunetik hasita **5 laneguneko epean** inolako erreklamaziorik jartzen ez bada edo bazterketa eragin duen hutsa zuzendu ez bada.

Erreklamazioak baleude edo bazterketa eragin duen hutsa zuzendu bada, behin-betiko zerrenda onartuko duen ebazpen baten bitartez onartuak edo baztertuak izango dira.

Lehenengo frogaren eguna onartu eta baztertuen behin betiko zerrendarekin batera argitaratuko da Garbitaniaren bulegoko iragarki taulan eta webgunean. Hautaketa Batzordeak Garbitaniako bulegoko iragarki taulan eta webgunean emango du ondorengo ariketen berri.

6.- HAUTAKETA BATZORDEA

6.1. Osaketa:

Hautaketa Batzordea hurrengo kideek osatuko dute:

- Juan Carlos Aranburu Liceaga
- Ainara Lasa Irastorza
- Jon Fernandez Usarraga

- Oihan Tello Loiarte
- Asier San Emeterio Otegi
- Amaia Gorrotxategi Zubizarreta
- Eneritz Gurrutxaga Gogortza

Hautaketa batzordeari dagokio:

- Eginiko froga guztiak baloratzea
 - Oinarri hauek interpretatu eta zalantzak argitu
 - Administrazio Kontseiluari lan poltsan onartu beharreko hautagaiak proposatzea
- Batzordea proba guztiak egiteko eta baloratzeko behar den haina aldiz bilduko da eta Garbitania Zero Zaborreko gerenteak edo honek eskuordetutako pertsonak bilera guztietako akta egingo du. Batzordean parte hartzen duten batzordeko kide guztiak sinatuko dute akta.

6.2. Aholkulariak:

Aholkulari espezialistak egon ahal izango dira, egokiak iruditutako probak programatzeko edo ebaluatzeko. Aholkulari horiek beren espezialitatearen arloan laguntza ematera mugatuko dira eta epai mahaiari dagokion erabakietan ez dute botorik izanen.

6.3. Jarduketa prozedura:

- a) Hautaketa batzordeak, hala behar izanez gero, arau hauek aplikatzearen ondorioz sor daitezkeen zalantza guztiak ebatzi ahal izango ditu. Era berean, probak egiteko beharrezko diren moldaketa guztiak egin ahal izateko neurri egokienak hartuko ditu.
- b) Hautaketa batzordeak proposaturiko izangaiekin zerrenda osatuko da, deialdi honen objektua den behin-behineko beharrak betetzeko.
- c) Izangai batek ere gaindituko ez balitu baztertzailak diren proba guztiak, deialdia hutsik aitortuko da.

7.- HAUTAKETA PROZEDURA

Izangaiak hautatzeko prozedura honakoa izango da.

Ariketa bakoitzerako deialdi bakarra egingo da.

Garbitaniak ariketak egiteko deialdian jarritako egunean, lekuan eta orduan agertzen ez diren izangaiak –baita ezinbesteko arrazoiengatik bada ere, legeak babesten dituen kasuak salbu-, hauta-prozesutik kanpo geratuko dira erabat.

Hautaketa prozesua jarraian aipatzen diren fase eta ariketez osatuko da:

1. fasea

- **Lehen ariketa:** Derrigorrezkoa eta baztertuailea. Froga teorikoa.

Atez ateko hondakin bilketaren lanpostuarekin zerikusia du(te)n froga teorikoa burutu beharko dute hautagaiek, hautaketa batzordearen esku geratuko delarik froga bat edo gehiago egitea, eta egun batean edo egun gehiagotan burutzea.

Ariketa honetan, gehienez ere, 25 puntu lortu ahal izango dira. Ariketa hau gainditu ahal izateko derrigorrezkoa izango da proba bakoitzaren puntuazioaren %50 ateratzea. Oker erantzundako galderak "kenkari" gisa konputatuko diren hautaketa batzordeak erabakiko du eta azterketaren hasieran jakinaraziko zaie hautagaiei.

Ariketa honetan aztergai izango den materialaren gai zerrenda II. eranskinean jasotzen dena izango da.

- **Bigarren ariketa:** Derrigorrezkoa eta baztertuailea. Euskarako froga.

Izangaien euskara maila neurtzeko dagokion azterketa egingo da. Derrigorrezko 1. hizkuntza eskakizunari dagokion euskara maila dutela egiaztatu beharko dute.

Ez da punturik emango eta izangaiak gai edo ezgai sailkatuko dira. Froga hau gainditzeko ez dutenek hautaketa bidetik baztertuta geldituko dira. Froga honek barne eraginak izango ditu eta Garbitaniak ez du inongo ziurtagiririk luzatuko.

Ez dute froga hau egin beharrik izango ziurtatzen dutenak 1. hizkuntza eskakizunarekin parekatutako agiriaren baten jabe direla, betiere, euskararen ezagutza egiaztatzen duten titulu eta ziurtagiriaren arteko baliokidetzak finkatu eta Hizkuntzen Europako Erreferentzi Marko Bateratura egokitzeko apirilaren 8ko 64/2008 Dekretuak jasotakoaren arabera.

- **Hirugarren ariketa:** Derrigorrezkoa eta baztertuailea. Froga praktikoa

Aurreko ariketak gainditu dituzten hautagaiek kamioiak gidatzearekin zerikusia duen froga praktikoa burutu beharko dute, hautaketa batzordearen esku geratuko delarik froga bat edo gehiago egitea, eta egun batean edo egun gehiagotan burutzea.

Ariketa honetan, gehienez ere, 35 puntu lortu ahal izango dira. Ariketa hau gainditu ahal izateko derrigorrezkoa izango da proba bakoitzaren puntuazioaren %50 ateratzea.

2. fasea

Curriculumeko merituen balorazioa. Eskainitako lanpostuarekin harremana duen esperientzia baloratuko da. Horretarako, 1. fasea gainditu duten izangaien iragarpena egiten den egunetik 10 laneguneko epean eskabidean jasotako merituen justifikatzen duen ziurtagiria aurkeztu beharko du. Justifikatutako epealdia jarraian xehatutako moduan baloratuko da:

1. Atez ateko zamalanetan lan egindako hilabete bakoitzeko (30 egun) puntu 1 emango da. Gehienez 15 puntu.

2. Hilabetea baino frakzio txikiagotan lan egindako epealdiengatik jasotako puntu kopurua, 1. atalean jasotako baldintzaren baitako zuzenki proportzionala izango da.

8.- ONARTUEN ZERRENDA ETA KONTRATATZEKO PROZEDURA

Hautaketa batzordeak, ariketa bakoitza kalifikatu ondoren, hautaketa prozedura gainditu duen izangaiekin hurrenkera argitaratuko du. Ariketa bakoitzaren behin-behineko puntuazioaren aurka egiteko 3 laneguneko epea emango da, eta epe horretan erreklamaziorik egongo ez balitz, emaitza behin betikoa izango da automatikoki.

Azken emaitzak erreklamatzeko epea bukatu eta gero, Garbitaniak hautaketa gainditu duten izangaiekin lan arriskuen prebentzio eta segurtasunaren inguruko formakuntza ikastaro antolatuko du. Parte hartzera derrigortuak egongo dira izangai guztiak. Ikastarora bertaraten ez den hautagaiak, Garbitanian formakuntza saio berri bat antolatu artean ezin izango du Garbitaniarekin kontraturik izenpetu.

Hautaketa batzordeak, hautaketa gainditu eta prebentzio eta segurtasun arloko formazioa jaso duten izangaiekin puntuazioaren arabera lan poltsaren hurrenkerearen proposamena egingo dio Garbitaniako Administrazio Kontseiluari, bertan behin betikoz onartuko direlarik.

Lan poltsa honen kudeaketa Garbitaniako barne arauen arabera burutuko da.

9 FROGALDIA, KONTRATUAREN IRAUPENA, KONTRATUA ETETEA ETA KONTRATUA AMAITZEA

Kontratuak aldi baterako kontratuak izango dira Garbitaniak ordezkapeneterako dituen beharren arabera. Hautaketa prozesu honetan parte hartu eta prozesua gainditzen duten kideak, Garbitanian jada indarrean dagoen lan poltsari atxikiko zaizkio.

Biltzaileek Garbitaniak eginiko eskaintzari uko egin diezaioke, beti ere lanean dagoela ziurtatzen badu edo pisuzko arrazoiak aurkezten baditu (osasun arazoak medio). Egoki arrazoitutako kasuetan lan poltsaren hurrenkera errespetatuko da, beste kasuetan azken postura pasako delarik hautagaia.

1382/1985 Errege-Dekretuan ezarritako bereizitasunak kontuan hartzeaz gain, Langileen Estatutuan ezarritako arrazoiengatik eta hor ezarritako prozeduren bidez ere amaitu ahal izango da kontratua.

I. ERANSKINA

ESKABIDEA

SARRERA ERREJISTROA	HONDAKIN BILTZAILE-KAMIOI GIDARIEN kontratazioa

DATU PERTSONALAK

Izen abizenak:					
NAN zkia:		Jaioteguna:		Telefonoa:	
Helbidea:				Helbide elektronikoa:	
Herria:			Posta kodea:		

IKASKETAK

ATEZ ATEKO ZAMALANETAN ESPERIENTZIA: (HILABETE eta EGUN KOPURUA)

ESKAERA HONEKIN BATERA DOAZEN AGIRIAK

- N.A.N.-aren fotokopia
- Deialdian parte hartzeko eskatutako tituluaren fotokopia
- Hizkuntz eskakizunaren egiaztagiriaren fotokopia (edo baliokide den tituluarena)
- C gida baimenaren kopia
- CAP ziurtagiria

Behean sinatzen duenak, eskaera hau dagokion aukeratzeko prozeduran onartua izatea ESKATZEN DU, eta BAI EZTATZEN DU:

- 1) Bertan azaltzen diren datuak egiazkoak direla eta Oinarrietan 3. puntuan eskatutako baldintzak betetzen dituela. Eskatutakoan agiri orijinal bidez zurituko dituela hitz ematen duelarik.
- 2) Pertsonal izaera duten bere datuak fitxategi batetan sartzea baimentzen duela.

_____, 2013ko _____-ren _____ a.
SINADURA

II. ERANSKINA

GAI ZERRENDA

Kale izendegia:

- Usurbilgo kale izendegia:
<http://b5m.gipuzkoa.net/web5000/kaletegia/usurbil>
- Hernaniko kale izendegia:
<http://b5m.gipuzkoa.net/web5000/kaletegia/hernani>
- Astigarragako kale izendegia:
<http://b5m.gipuzkoa.net/web5000/kaletegia/astigarraga>
- Oiartzungo kale izendegia:
<http://b5m.gipuzkoa.net/web5000/kaletegia/oiartzun>

Ordenantzak artikulua:

- Usurbilgo “Hiri hondakinak bildu eta tratatzeko udal ordenantza”ko ondorengo artikulua:
 - o 1. Artikulua
 - o 3. Artikulua
 - o 4. Artikulua
 - o 6. Artikulua
 - o 7. Artikulua
 - o 8. Artikulua
 - o 9. Artikulua
 - o 10. Artikulua
 - o 12. Artikulua
 - o 15. Artikulua
 - o 25. Artikulua
 - o 26. Artikulua
 - o 27. Artikulua
 - o 30. Artikulua
- Hernaniko “Hiri hondakinak bildu eta tratatzeko udal ordenantza arautzaile”ko ondorengo artikulua:
 - o 1. Artikulua
 - o 3. Artikulua
 - o 4. Artikulua
 - o 6. Artikulua
 - o 7. Artikulua-7 bis barne
 - o 8. Artikulua
 - o 9. Artikulua
 - o 10. Artikulua
 - o 12. Artikulua
 - o 15. Artikulua
 - o 26. Artikulua
 - o 27. Artikulua
 - o 28. Artikulua
 - o 29. Artikulua
 - o 30. Artikulua

- o 31. Artikulua
- o 32. Artikulua
- o 33. Artikulua
- o 35. Artikulua
- o 36. Artikulua
- o 38. Artikulua
- o 41. Artikulua

•Astigarragako “Hiri hondakinak bildu eta tratatzeko ordenantza”ko ondorengo artikulua:

- o 1. Artikulua
- o 3. Artikulua
- o 4. Artikulua
- o 6. Artikulua
- o 7. Artikulua
- o 8. Artikulua
- o 9. Artikulua
- o 10. Artikulua
- o 12. Artikulua
- o 15. Artikulua
- o 16. Artikulua
- o 27. Artikulua
- o 28. Artikulua
- o 29. Artikulua
- o 30. Artikulua
- o 31. Artikulua
- o 32. Artikulua
- o 33. Artikulua
- o 34. Artikulua
- o 35. Artikulua
- o 36. Artikulua
- o 37. Artikulua
- o 39. Artikulua
- o 42. Artikulua

•Oiarzungo Hiri hondakinak bildu eta tratatzeko Udal Ordenantza Arautzaileko ondorengo artikulua:

- o 1. Artikulua
- o 3. Artikulua
- o 4. Artikulua
- o 6. Artikulua
- o 7. Artikulua
- o 8. Artikulua
- o 9. Artikulua
- o 10. Artikulua
- o 12. Artikulua
- o 15. Artikulua
- o 26. Artikulua
- o 27. Artikulua
- o 28. Artikulua
- o 29. Artikulua
- o 30. Artikulua
- o 31. Artikulua

- o 32. Artikulua
- o 33. Artikulua
- o 35. Artikulua
- o 36. Artikulua
- o 39. Artikulua
- o 41. Artikulua

Dokumentuak:

- Bilketa protokoloa
- Hondakin frakzioen bereizketa